

3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Urriak 10,13,17,20,24,27	IKASGELA/ TOKIA	M4 gela, IVAP San Bartolome, 28 Donostia
IRAUPENA	15 ordu	ORDUTEGIA	09:00-11:30
MATRIKULA EPEA	Irailaren 21era arte	ONIRITZI EPEA	Irailaren 29ra arte
IKASLE KOPURUA	15	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da 2. HE gaindituta izatea.
IRAKASLEA	Labayru	MATERIALA	Ikastaroan banatuko da
DISEINUA	Labayru	AZPIEGITURA	Ordenagailua eta arbela

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	3. HEko idazmen-probarako idatziak sortzen trebatzea. Idatzi horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.
HELBURU ZEHAZKAK	Azterketaren aurkezpena egin. IVAPeko idazmen-probaren balorazio-irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna. Eredu onak, idazteko estrategiak eta eskemak landu. Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin. Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin. Zuzentasunari buruzko azalpenak eman: oinarrikoak diren akats larriak aipatu, aholkuak eman eta autozuzenketa bultzatu.
GAITASUNAK	Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da 3. HEko idatziak sortu behar dituenean, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebalutzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

PRESTAKUNTZA ARLOA:	ERABILERA PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITATEA:	AURREZ AURREKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
- Talde txikietan lan egiten saiatuko gara.
- Egindako lana konpartitu eta komentatuko da.

1. saioa:

C1 mailaren deskribapen orokorra egin.
3HEren azterketaren egitura azaldu, eta bereziki idazmen-probaren idatzien nondik norakoak.
Iritzi-artikulu bat egin, azken eskola-egunean zuzentzeko.

2. saioa:

IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.
Idazteko prozesua azaldu: eredu onak idazteko estrategiak.
Iritzi-artikuluaren zirriborroa nola egin azaldu eta ariketak egin.
Etterako: gaia eman, eta horren gaineko iritzi-artikulu idazteko zirriborroa egin.

3. saioa:

Etxean egindako eskema partekatu, komentatu, hobetu, zuzendu... denon artean.
Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin.
Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.

PROGRAMAZIOA

4. saioa:

Gutuna: gutuna eta ofizioaren arteko desberdintasunez ohartarazi, gutunen osagaiak eta ezaugarriak azaldu eta ariketen bidez landu: zirriborroa, agurrak, erregistroa, estilo-aholkuak...
Aberastasunari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.
Etterako: gutun-eredu desegoki bat eman eta zuzendu.

5. saioa:

Etxean zuzendutako gutuna, guztion artean komentatu edota zuzendu.
Zuzentasunean baloratzen denaren berri eman eta ariketen bidez landu.
Aprobetxamendu-proba.
Etterako: lehen eskola egunean egindako norbere iritzi-artikulu zuzendu.

6. saioa:

Aprobetxamendu-probaren zuzenketa eta hobetzeko proposamenak.
Lehen eskola egunean egindako idazmen-probaren irakaslearen zuzenketa eman, eurek egindakoarekin erkatzeko.
Azken gomendioak eta birpasa ariketak.
Balorazioa.

3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** Ebaluaketa egiteko saioan eskatutako proba neurtu eta baloratuko da.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

Bete beharreko baldintzak:

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

145 €

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.